



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA
2017/05/18

Batzar Nagusiek ez dabe onartu Aldundiak garraio publikoko alternatiba bat aztertu behar dauenik Isuskiza auzorako

Garraio publikoaren faltea dala eta Isuskiza auzoko “mila” biztanleek bizi daberen egoerak zentru dau gaur eztabaidea Bizkaiko Batzar Nagusietako Garraio, Mugikortasun eta Lurraldearen Kohesinorako Batzordean. Gaur eguerdian Bilbon egin dan saioan ez da onartu, EAJ-PNV eta PSE-EE taldeen kontrako botoakaz, EH Bilduren zuzenketa eske bat. Zuzenketa eske horretan eskaria egiten jaken Aldundiari eta Plentziako Udalari, Plentziako “El Abanico” urbanizazio pribadurako mobikortasuneko alternatibak aztertu daiezan alkarren artean, eta horren ostean, finantzaketa hoberena “balorau” daien. Oposizino osoa neurri horreen alde agertu da.

Legealdi honetan batzorde horrek egiten dauen hogeta bosgarren saioan, Batzarretako Podemos Bizkaiak arauz besteko proposamen bat ekarri dau, “aukerarik egingarriena eta iraunkorrena” finantzetako, Isuskizako auzokideek “garraio publikoa izateko daukien eskubidea baliu daien”. EH Bilduk zuzenketa eske bat aurkeztu deutso testuari, aurretik azterlan tekniko eta ekonomiko bat egin daiten, eta talde moreak onartu egin dau zuzenketa hori.

Batzarretako talde guztiek onartu dabe Isuskizan, plentziarren “%25” bizi dan lekuan, “arazo” bat dagola, “azken 40 urteetan” ez dagolako garraio publikorik. Dana dala, ez dira ados jarri, egoera horri konponbidea emon behar deutzan administrazioa zein dan erabagiteko orduan.

EAJ-PNV eta PSE-EE taldeen eretziz udalerria izan beharko da horren gastua bere gain hartu behar dauena, garraioak “uri barruko” izaerea daukalako, helburua auzo hori metroagaz lotzea dalako, Plentziako geltokian. Foru Aldundia Bizkaibus zerbitzuaren bitartez bertara sartzen bada, talde bi horreen eretziz “konparazinozko bidebakokeria” izango litzateke daborduko euren zerbitzuak dituen Bizkaiko beste udalerrri batzuen aurrean, “Zeberio, Iurreta, Bermeo, Erandio edo Amorebieta”, besteak beste.

Oposizinozko lau taldeak beste aldean jarri dira. Arturo Aldecoa talde mistoko batzordekidea konponbide “bateratua” bilatzearen alde agertu da, Aldundiko teknikariak izan daitezcan alternatiba hoberena balorauko dabena.

Neskutz Rodríguez talde moreko bozeroaleak kritikau egin dau erakunde biek –Udalak eta Aldundiak– bata besteari “pelotea pasetan ibilteea”, eta esan dau bere eretziz egokiena Urdulizko ospitaleraino zerbitzua ezarriko dauena Aldundiko Garraio Saila izatea dala. Beste udalerrri batzuetan baino “bizkaitar gehiagori” egingo leuskio mesede, udalerrri horreetako auzoetan Isuskizan baino “biztanle gitxiago” bizi diralako.

PPren eretziz be, Aldundia izan beharko litzateke horren gaineko gastua bere gain hartu beharko leukena, herri arteko zerbitzua dalako (Isuskiza-Urduliz). Jesús Isasik “ausardia” eskatu deutso Aldundiari, “proba pilotu” bat aurrera eroateko.

EH Bilduko Zigor Isuskizak, bere aldetik, adierazo dau bere taldearen esku dagon Plentziako Udala “prest dagola hitzarmen bat sinatzeko” garraio zerbitzua eskini ahal izateko, eta ez dauela



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

baztertzen kostaldeko udalerrria izatea, bera bakarrik, gastua bere gain hartuko dauena, alternatibean azterlanak egokiena hori dala erakusten badau.

ALDIAN BEHINGO BILLETEAREN IGOERIA BILBOKO METROAN

Saio berean, Batzarretako taldeek Vicente Reyes Garraio, Mugikortasun eta Lurraldearen Kohesinorako foru diputatuaren azalpenak entzun ditue, Metro Bilbaoren eta Euskotrenen aldian behingo billeteen prezio barrien inguruan, 3. linea funtzionetan hasi danetik garraio modu bi horreek alkartu egin diralako. EH Bilduk, zehatzago esanda, “Aldian behingo BGP-CTB” izeneko billeteen prezioak izan dauen “igoerearen” inguruan galdetu deutso diputatuari. Koalizino abertzaleari erantzunez Reyesek esan dau billete horreek “10 edo 15 zentimoko” igoera izan dabela aurretan, gune bakotxaren arabera.

Diputatuak azaldu dauenez, “2013tik izoztuta egozan” aldian behingo billeteen prezio barriak, Metro Bilbaoren eta Euskotrenen arteko “intermodaltasunaren ondorioak” dira, beharrezkoa dalako operadore bien tituluek prezio bera izatea. Reyesek adierazo dauenez, Metro Bilbaon 10 edo 15 zentimoko igoera dan hori “10, 15 edo 50 zentimoko” jatsierea da Euskotrenen, aukeratutako gunearen arabera.

Dana dala, Reyesek garrantzia kendu deutso Bilboko lur azpiko trenaren erabiltzaileengan neurri horrek izango dauen eraginari, “Aldian behingo” billetearen erabilera “%1,8koa” dalako, hau da, “turistek edo Barik txartela erosten ez daben pertsonak” baino ez dabelako erabilten. Neurria defendiduteko, diputatuak esan dau aldian behingo billeteen prezio barriak – 1,60 euro gune bakar baterako– Madrilgo metroaren antzekoak dirala, eta Bartzelonako metroaren prezioaren azpitik dagozala, haren prezioa “2,15 eurokoa” dalako.

EH Bilduko Zigor Isuskizaren eretxiz, barriz, Bilboko Metroaren prezioaren igoera, azken urte bietan, 3. linea edegi ostean titulu “multimodalak” martxan jarri eta gero batez be, lur azpiko garraioak izan dituan igoeren “beste pauso bat” da. Reyes defendidu egin da, eta esan dau billete aukera barriak, orokorrean, “aurrezpena” ekarriko dauela erabiltzaleentzat. Bere aurreikuspenak kontuan izanda, aurrezpen hori “milioi bi euro” ingurukoa izango da.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA
18/05/2017

Juntas Generales rechaza que la Diputación deba estudiar una alternativa de transporte público para el barrio de Isuskiza

La situación que viven los “mil” habitantes del barrio de Isuskiza por la falta de transporte público ha centrado el debate de hoy en la comisión de Transportes, Movilidad y Cohesión del Territorio de las Juntas Generales de Bizkaia. En la sesión celebrada este mediodía en Bilbao se ha desestimado con los votos en contra de PNV y PSE-EE una enmienda de EH Bildu que venía a solicitar a la Diputación y al ayuntamiento de Plentzia que “estudiaran” conjuntamente alternativas de movilidad para la urbanización privada de “El Abanico” de Plentzia y “valorasen”, a posteriori, la mejor financiación, medidas que han sido apoyadas por toda la oposición.

En la vigesimoquinta sesión de esta comisión durante la presente legislatura, el grupo juntero Podemos Bizkaia traía una proposición no de norma en la que se reclamaba un “acuerdo” entre el ayuntamiento de Plentzia y la Diputación para financiar ya “la opción más viable y sostenible” con el propósito de que los vecinos y vecinas de Isuskiza pudieran “disfrutar de su derecho a disponer de transporte público”. EH Bildu ha enmendado el texto para que primeramente se haga un estudio técnico y económico, corrección que ha sido aceptada por el grupo morado.

Todos los grupos junteros han reconocido que en Isuskiza, núcleo donde habita el “25%” de los plentziarras, existe un “problema” por la falta de transporte público “desde hace 40 años”, si bien no se han puesto de acuerdo en qué administración debe encargarse de poner la solución.

Para PNV y PSE-EE debe ser el municipio el que corra con el gasto ya que la solución pasa por implantar un transporte de carácter “urbano”, que comunique este barrio con el metro en la estación de Plentzia. De entrar la Diputación a través de su servicio Bizkaibus, ambas formaciones creen que sería “un agravio comparativo” respecto a otros municipios vizcaínos que ya disponen de servicios propios como “Zeberio, Iurreta, Bermeo, Erandio o Amorebieta”.

En el otro lado se han situado los cuatro grupos de la oposición. El apoderado del grupo Mixto Arturo Aldecoa ha sido partidario de buscar una solución “conjunta” y que sean los técnicos forales quienes valoren la mejor alternativa.

La portavoz de la formación morada Neskutz Rodríguez ha criticado que ambas instituciones - ayuntamiento y Diputación- “se pasen la pelota” y ha abogado por que sea el departamento foral de Transportes el que establezca un servicio hasta el hospital de Urduliz. A su juicio, este servicio beneficiaría “a más vizcaínos y vizcaínas” que otros municipios por donde pasa el Bizkaibus y que tienen “menos población” que Isuskiza.

El PP ha abogado también por que sea exclusivamente la Diputación la que corra con el gasto al tratarse de un servicio interurbano (Isuskiza-Urduliz). Jesús Isasi ha pedido “audacia” a la Diputación para llevar a cabo una “prueba piloto”.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Por su parte, Zigor Isuskiza, de EH Bildu, ha revelado que el ayuntamiento de Plentzia, gobernado por su formación, estaría “abierto a firmar un convenio” para el establecimiento de un servicio de transporte, sin descartar que sea sólo el municipio costero el que corra con el gasto si el estudio de alternativas así lo aconsejara.

SUBIDA DEL BILLETE OCASIONAL EN METRO BILBAO

En la misma sesión, los grupos junteros han atendido las explicaciones ofrecidas por el diputado foral de Transportes, Movilidad y Cohesión del Territorio, Vicente Reyes, en relación a los nuevos precios de los billetes ocasionales de Metro Bilbao y Euskotren debido a la integración de estos dos modos de transporte por la entrada en funcionamiento de la línea 3. Reyes ha respondido a EH Bildu que le ha preguntado, en concreto, por el incremento de los precios de los billetes denominados “Ocasional CTB”, los cuales en Metro Bilbao han experimentado este año una subida de "10 o 15 céntimos" en función de la zona.

El diputado ha explicado que los nuevos precios de los billetes ocasionales, “que estaban congelados desde el año 2013”, vienen “obligados por la intermodalidad” de Metro Bilbao y Euskotren, y por la necesidad de que los títulos de ambos operadores “converjan” en un mismo precio. Reyes ha precisado que lo que es una subida de 10 o 15 céntimos en Metro Bilbao, en Euskotren supone una bajada de "10, 15 o 50 céntimos" en función de la zona elegida.

De todas formas, Reyes ha restado importancia a la repercusión económica para los usuarios del suburbano bilbaíno, ya que el uso del “Ocasional” alcanza al “1,8%” del total de viajeros, es decir, sirve a “turistas o personas que no compran Barik”. En su defensa, el diputado ha señalado que los nuevos precios de los ocasionales -1,60 euros para una zona- se mueven en cifras "parecidas" a las del metro de Madrid y por debajo del suburbano de Barcelona que cuesta “2,15 euros”.

Por el contrario, para Zigor Isuskiza, de EH Bildu, la subida en Metro Bilbao supone un “suma y sigue” de los incrementos de precio del transporte suburbano experimentadas en los dos últimos años, sobre todo, tras la implantación de los títulos “multimodales” por la apertura de la Línea 3. Reyes se ha defendido diciendo que la nueva gama de billetes es, en términos generales, un “ahorro” para los usuarios cifrado en “dos millones de euros”, según sus estimaciones.